

ARLO TEKNIKOKO ARDURADUNAREN LANPOSTUA BETETZEKO DEIALDIAREN OINARRIAK

Lehenengoa. —*Deialdiaren xedea*

Arlo teknikoko arduradunaren lanpostua betetzeko merezimendu-lehiaketa arautzea da oinarri hauen xedea.

Bigarrena. —*Lanpostua*

1. Lanpostuaren izena: arlo teknikoko arduraduna
2. Mota: langile lan-kontratuduna, lanaldi partzialean (% 50); beharren arabera luza daiteke
3. Lanpostua betetzeko sistema: izaera espezifikoko merezimendu-lehiaketa
4. Lanpostuaren profila eta funtzioak: ikusi deialdia
5. Ordainsaria hitzarmenaren arabera izango da (13.627,47 € gordin urteko)

Hirugarrena. —*Parte hartzeko baldintzak*

Eskaera aurkezten den unean bete beharreko baldintzak dira, eta lehiaketako postua esleitu arte eutsi behar zaie baldintza horiei.

1. Erdi-mailako gradua izatea gutxienez.
2. Federatuta egotea, eta lizentzia eguneratuta izatea.
3. Mendiko prestakuntza izatea.
4. Informatikan maila altua izatea (Excel , Word, posta elektronikoa).
5. Euskara.

Laugarrena. —*Eskaeren aurkezpena*

Merezimendu-lehiaketa honetan parte hartzeko eskaerak EMFren bulegoetan (Amadeo García Salazar plaza 2, 2. solairua, Vitoria-Gasteiz 01007) aurkeztu ahal izango dira, edota gasteiz-emf@emf-fvm.com helbidera bidal daitezke, **otsailaren 14tik martxoaren 4ra bitartean**, azken egun hori barne. Ez dira onartuko epez kanpo aurkezten diren eskaerak.

Eskaerarekin batera, honako dokumentazio hau ere aurkeztuko da:

- NANaren kopia.
- Lanpostua lortzeko eskatzen den tituluazioaren kopia.
- Eguneratutako federazio-lizentziaren kopia.
- Lehiaketa-deialdi honetan balioesteko argudiatzen diren merezimenduen zerrenda, eta horiek egiaztatzen dituzten dokumentuen kopia.

Lehiaketa honetan parte hartzen duten pertsonak automatikoki baimena emango dute nahitaezko argitalpenetan identifikatuak izateko, izaera pertsonaleko datuak babesteko indarrean dagoen araudiaren ondorioetarako.

Hautapen-prozesu oro arautzen duen publikotasun-printzipioaren ondorioz, ez da onartuko izangaiaren eskaerarik, bere datuen erabilera onartzen ez badu; halaber, jakinaraziko zaio deialdia egin duen organora zuzentzeko aukera duela, sartzeko, zuzenketaren bat egiteko, indargabetzeko eta aurkakotasunen bat aurkezteko duen eskubideaz baliatu nahi badu.

Bosgarrena. —*Balioespena*

Zuzendaritza Batzordeak independentzia osoz, zuhurtzia tekniko eta objektibotasunez jokatu du, eta haren proposamenek EMFren atxikimendua ekarriko dute; eta erabakiak arrazoitu egin beharko ditu. Balioespenerako, adituen aholkularitza eskatu ahal izango du Zuzendaritza Batzordeak. Aholkulari horiek hitza izango dute, baina ez botorik.

Seigarrena. —*Merezimenduen balioespena*

A) Lehenengo fasea. Izaera orokorreko merezimenduak: izangaia lehiaketaren lanpostuaren esleipenduna izateko, **4** puntu edo gehiago lortu behar ditu, horixe baita lehenengo fase honetarako ezarritako gutxienekoa.

B) Titulu akademikoak

1. Mendiko kiroleko goi-mailako kirol-teknikaria: **3** puntu/ *jarduera fisikoaren eta kirolaren zientzien lizentzia*.
2. Erdi-mailako kirol-teknikaria: **2** puntu.
3. Unibertsitate-mailako beste titulu batzuk: 0,50 puntu (gehienez puntu **1** lortu ahal izango da).
4. Mendiarekin, lehen sorospenekin eta abarrekin lotutako ikastaroak: puntu **1**.
5. Federazioek edota erakunde ofizial batek antolatu, eman edo homologatutako eta behar bezala egiaztatutako prestakuntzako edo trebakuntzako ikastaro bakoitzagatik 0,20 puntu emango dira (gehienez puntu **1** lortu ahal izango da). Ikastaro horiek hogeita (20) orduko edo gehiagoko iraupena izan behar dute, eta honako gai hauen ingurukoak izan behar dute: bulegotika eta istripuen erantzukizun zibilaren gaineko jurisprudentzia.
6. Euskara:
C1 maila duela egiaztatuz gero: puntu **1**.
B2 maila duela edo elkarrizketa pertsonalean euskaraz hitz egiteko eta idazteko gaitasuna duela egiaztatuz gero: **0,50** puntu.

C) Esperientzia

Federazio edo erakunde batean lan egin dela behar bezala aitortuz gero (lan-kontratua, soldata-orria, etab.), honela balioetsiko da esperientzia hori:

1. Arlo teknikoko arduradun gisa lanean jardun badu: 0,50 puntu, lan egin duen urte bakoitzeko (gehienez **4** puntu lortu ahal izango dira).

D) Elkarrizketa pertsonalak gehienez 5 puntuko kalifikazioa izango du.

Zazpigarrena. —*Lehiaketaren garapena*

Parte-hartzeko eskaerak aurkezteko epea amaitu ondoren, EMFren Zuzendaritza Batzordera zuzenduko dira eskaerak, horrek deialdian eskatutako baldintzak behar bezala betetzen direla egiaztatu ondoren, parte-hartzaileek argudiatutako merezimenduak bi fasetan balioets ditzan:

- a) Lehenengo fasean, seigarren oinarriko B eta C ataletan aurreikusitako merezimenduak balioetsiko dira. Argudiatutako merezimenduen balioespena egingo du Zuzendaritza Batzordeak, eta federazioaren webgunean argitaratuko da.
- b) Elkarrizketa pertsonala, D atala.

Ondoren, Zuzendaritza Batzordeak erabakia hartuko du, eta bi faseak batuz, hau da, (B+C) + D batuz, puntuazio handiena lortu duenari proposatuko dio deialdiko lanpostuaren esleipena, deialdian eskatutako gutxieneko puntuazio bera edo handiagoa lortzen badu, betiere.

Esleipenaren erabakia eta eskatutako gutxieneko puntuazioa lortu dutenen zerrenda argitaratuko dira, eta horiek osatuko dute lanpostu horretarako **LAN-POLTSA**, lortutako lehentasun-ordenari jarraituz.

Lehiaketan parte hartu dutenek erabakiaren aurka beren erreklamazioa aurkeztu ahal izango dute, argitaratzen den hurrengo egunetik hiru egun balioduneko epean, eta Zuzendaritza Batzordeak berak ebatziko du erreklamazioa.

Zortzigarrena. —*Ebazpena*

Balioespena eginda eta, hala badagokio, berorren aurka egindako erreklamazioak ebatzita, Zuzendaritza Batzordeak lanpostua esleituko dio, fase guztietako puntuazioak batuta, hau da, (B+C)+D batuta, puntuazio handiena lortu duenari, deialdian eskatutako gutxieneko puntuazio bera edo handiagoa lortzen badu, betiere.